

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AZPEITIKO UDALA

Azpeitiko Udalaren 2023-2025eko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren bigarren eguneraketa.

Azpeitiko Udalbatzak, 2024ko abenduaren 17an egindako saioan, 2023-2025eko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren bigarren eguneraketa onartu zuen, 2025erako onartutako aurrekontuetara egokituz.

2023-2025eko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa hasieran 2023ko otsailaren 7an egindako Udal Osoko Bilkuran onartu zen eta 2023ko martxoaren 1ean Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen. Ondoren, 2024ko otsailaren 6an eguneratu zen, urte horretarako onartutako aurrekontuetara egokituz, eta 2024ko martxoaren 11n Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen.

Bigarren eguneraketa honek 2025erako Udalaren lehentasunak islatzen dituzten lerro espezifiko berriak jasotzen ditu, eta bertan zehazten dira eskumen arloak, helburuak, aurreikusitako ondorioak, gauzatze epeak, aurreikusitako kostuak eta finantzaketa iturriak. Halaber, berrikusitako edo gainditutako helburuak dituzten dirulaguntzen lerroak ezabatu dira, eta 2025eko aurrekontuen arabera lerro bakoitzerako aurreikusitako kostuak egokitu dira.

2023-2025eko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren edukia, 2025ean behar bezala eguneratuta, eskuragarri dago kontsultatzeko Azpeitiko Udalaren webgunean, laguntza eta dirulaguntzen programari dagokion atalean, eta Dirulaguntzen eta Laguntza Publikoen Datu Base Nazionalan, zuzenean dagokion atarian kontsultatu daitekeena.

Erabaki hau administrazio bidean irmoa da. Honen aurka, aukeran, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, errekurtsio administratibo-kontentziosoaren aurretik, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hilabeteko epean; edo, zuzenean, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian inpugnatu ahal izango da, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, eta egoki iritzitako beste edozein bide ere erabil daiteke.

Azpeitia, 2025eko urtarrilaren 14a.—Nagore Alkorta Elorza, alkatea. (291)

AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

Segunda actualización del Plan Estratégico de Subvenciones 2023-2025 del Ayuntamiento de Azpeitia.

El Pleno del Ayuntamiento de Azpeitia, en sesión celebrada el 17 de diciembre de 2024, aprobó la segunda actualización del Plan Estratégico de Subvenciones 2023-2025, adaptándolo a los presupuestos aprobados para el ejercicio 2025.

El Plan Estratégico de Subvenciones 2023-2025 fue inicialmente aprobado por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el 7 de febrero de 2023 y publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el 1 de marzo de 2023. Posteriormente, fue actualizado el 6 de febrero de 2024 para ajustarlo al presupuesto aprobado para ese ejercicio, siendo publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el 11 de marzo de 2024.

La segunda actualización incluye las nuevas líneas específicas que reflejan las prioridades del Ayuntamiento para 2025 y se detallan las áreas de competencia, objetivos, efectos previstos, plazos de ejecución, costes estimados y fuentes de financiación. Asimismo, se eliminan las líneas de subvenciones cuyos objetivos han sido revisados o superados, y se han ajustado los costes estimados para cada línea de subvención según los presupuestos del ejercicio 2025.

El contenido completo del Plan Estratégico de Subvenciones 2023-2025, debidamente actualizado en 2025, está disponible para su consulta en la página web del Ayuntamiento de Azpeitia, dentro del apartado correspondiente al programa de ayudas y subvenciones y en la Base de Datos Nacional de Subvenciones y Ayudas Públicas que puede consultarse directamente en el portal correspondiente.

El presente acuerdo es firme en vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al recurso contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.

Azpeitia, a 14 de enero de 2025.—La alcaldesa, Nagore Alkorta Elorza. (291)